

HIZKUNTZEN ALDEKO EKIMENAK LH 5-6



Ikasleek, ziur aski, euskararen aldeko hainbat ekitalditan parte hartzen dute: Korrika, Nafarroa Oinez, Herri Urrats... Jaigiroaz gozatzeaz gain, horrelako ekimenen atzean dagoen arrazoiak pentsatzen ote dute?

HELBURUA

Beste hizkuntza komunitate batzuk ezagutzea, horiei buruz zerbait ikastea eta guztietan erabilera sustatzeko dagoen beharraz pentsatzea.

EGITEKOAK

- Nafarroa Oinez-ek ekoiztutako [Txikiak Handi](#)¹ bideoa ikusi eta, denon artean, saiatu aipatzen diren sei hizkuntzak zerrendatzen:
 - Kitxua
 - Korsikera
 - Valentziera
 - Kaxubiera
 - Zeinu-hizkuntza
 - Euskara
- Aipatzen diren hizkuntzei buruzko oinarritzko informazioa eman (edo haiek bilatzeko eskatu), adibidez, [kitxua](#)² Hego Amerikan.
- Galdetu ingelesa edo frantsesaren aldean zer den hizkuntza hauek komunean duten ezaugarria. Ez badute asmatzen esan: guztiek jasotzen dute haien hiztunen bultzada gero eta gehiago erabil dadin, horren beharra baitute aurrera egiteko.
- Azaldu munduan asko direla Korrikaren eredia jarraituta, hizkuntzen aldeko lasterketak antolatzen hasi diren komunitateak: “Currilingua” korsikeraren alde, “Redadeg” breitorieraren alde, “La Passem” okzitanieraren alde, “Correllengua” katalanaren alde, “Correlingua” galizieraren alde, “Ras yr laith” galesaren alde, “Rith” Irlandako gaelikoaren alde, “Sprochrenner” alsazieraren alde eta “Lefkantun” maputxeen hizkuntzaren alde.

Kokatu komunitate horiek munduko mapan eta ikusi [Currilingua 2021](#)³ bideoa.

¹ <https://youtu.be/tnKb6kK5g3U>

² <https://eu.wikipedia.org/wiki/Kitxua>

³ <https://youtu.be/L4f0G81rrco>

- Amaitzeko, jarri berriro Nafarroa Oinezkeko Txikiak Handi-k egindako “[Arraroa noski](#)”⁴ kantaren bideoa eta euskarazko zatiak abestu elkarrekin:

Arraroa, noski, kitxua gabe Kito
Eta hau ere, ez al da arraroa,
euskararik gabe Nafarroa?

Arraroa, noski, korsu gabe Korsika
Eta hau ere, ez al da arraroa,
euskararik gabe Nafarroa?

Lingua Vasconum, Ligua Navarrorum
Ze arraroa euskararik gabe Nafarroa!

Arraroa, noski, valencià gabe València
Eta hau ere, ez al da arraroa,
euskararik gabe Nafarroa?

Arraroa, noski, kaxubierarik gabe Kaxubia
Eta hau ere, ez al da arraroa,
euskararik gabe Nafarroa?

Lingua Vasconum, Ligua Navarrorum
Ze arraroa euskararik gabe Nafarroa!

IRAUPENA

Saio bat.

Bi saio hizkuntzei buruzko informazioa ikasleek beraiek bilatzea nahi bada.

OSAGARRIAK

- Korrikaren “ahizpak” munduan, informazioa:
<https://www.korrika.eus/eu/munduan/korrika-munduan>⁵
- Korrikako kantak (historikoa): <https://www.korrika.eus/eu/korrika/historia>⁶

⁴ <https://youtu.be/tnKb6kK5g3U>

⁵ <https://www.korrika.eus/eu/munduan/korrika-munduan>

⁶ <https://www.korrika.eus/eu/korrika/historia>